



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko irailaren 28a

110. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, zeinaren bitartez aldatzen baita 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da, Nafarroaren lehiakortasun-maila leheneratzea ekarriko duen erreforma fiskal bat aurkez dezan. María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. Hitzarmena eta Etxeko Langileentzako Lanari buruzko 201. Gomendioa berresteko lanean jarrai dezan. Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaren publiko-komunitarioa, deszentralizatua eta kontrol publikoa bermatuko dituzten neurriak har ditzan, energia berriztagarrien enpresa publiko bat eratzeko egin beharreko urratsak eginez. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentua pozitu egiten da Venezuelako Bolibartar Errepublikako Gobernuak eta Venezuelako Plataforma Bateratuak akordioak erdietsi dituztelako. Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (11. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Parlamentuak Errekonozimendu eta Erreparazioarako Batzorderako izendatu beharreko lau kide hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (12. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, zeinaren bitartez aldatzen baita 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak. Proposamen hori 2021eko ekainaren 10eko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko irailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren zazpigarren puntua aldatzeko zuzenketa.

34. artikuluko zazpigarren puntua aldatu eta honela geldituko da:

«Zazpi. 16.2.c) artikulua bigarren paragrafoa aldatzen da. Testu hau izanen du:

“c) Negozio bolumen orokorrari buruzko adierazpena, eta, hala behar denean, kontratuaren xedearen antzekoa den jarduera-arloko negozio bolumenari buruzkoa, eskueran dauden azken hiru ekitaldietakoa gehienez ere, lizitatu behar duenaren sorrera-egunaren edo jardueren hasiera-egunaren arabera, negozio bolumen horren erreferentziak eskura dauden heinean.

Urteko gutxieneko negozio bolumen exigitua ez da handiagoa izanen kontratuaren balio zenbatetsia halako bat eta erdi baino, salbu eta behar bezala justifikatutako kasuetan, hala nola obren, zerbitzuen edo horniduren izaerarekin lotutako arrisku bereziekin zerikusia dutenetan. Kasu horretan, 138.3. artikuluan aipaturiko premiei buruzko txostenean adieraziko dira betekizun hori ezartzeko arrazoi nagusiak”.

Zioak: Beharrezkoa da, publizitate- eta garden-tasun-printzipioen mesedetan, argi geratzea non jaso behar diren kontratuaren balio zenbatetsia halako bat eta erdi baino gehiagoko kaudimena ezartzeko arrazoiak. Arrazoi horiek ez badira baldintza-agirietan jaso nahi, orain arte bezala, premiei buruzko txostenean jasotzea aurreikusi beharko da.

2. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren hamaseigarren puntua aldatzeko zuzenketa.

Artikulu bakarreko hamaseigarren puntua aldatu eta honela geldituko da:

«Hamasei. 39.2. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

Prestazio bat edo batzuk, elkarrekin zerikusia dutenak, banatuta erabili edo aprobetxatzeko modukoak badira, edo xedearen izaerak hala eskatzen badu, betiere unitate funtzional bakarra osatzen badute, zilegi izanen da halako bakoitzaren banakako kontratazioa aurreikustea, prozedura beraren barnean sortak antolatuz».

Zioak: Proposaturiko aldaketak ez du zentzurik xedeak ez badu baterako kontratazioa eskatzen duen unitate funtzionala, sortaka bada ere”.

3. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren hemeretzigarren puntua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 41.4 a) puntua aldatu nahi da, halako moduz non lehiaren defentsarako agintaritzari aurretiazko txostena eskatu beharrean, kontratua sortaka ez zaitzea erabakitzen denean eta horren ondorioz lehia-murriztapena gerta daitekeenean, aurreikusten baita adjudikazioaren ondoren kontratazio-organoak hari jakinarazteko betebeharra.

Lehia askea bermatzea da kontratazio publikoari buruzko arau orok jarraitu beharreko printzipio nagusia, zeina ezin baita azkartasunaren printzipioaren mendean jarri. Hori dela eta, lizitazioa objektiboki antzeman ezinezkoak diren eta lehiarekin zerikusia duten arrazoiak tarteko kontratua sortaka zaitzen ez den salbuespenezko kasuan, ez da egokia aurretiazko txostenaren zuhurtzia kentzea.

Ondoren jakinarazteko beharrak, gainera, eragin ekonomiko oso kaltegarriak izanen ahalko lituzke adjudikazio botereentzat, lehiaren defentsarako agintaritzak gerora antzemango balu lehia murriztu, urratu edo faltsutu egin dela.

4. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

41.4.a) artikulua aldatzen duen 19. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 41.4.a) artikulua aldatzeko proposamena kentzea eta jatorrizko testua mantentzea proposatzen dugu.

Apirilaren 2/2018 Foru Legearen berritasun bat izan zen kontratazio-organoari exigitzea kontratua sortatan banatzea, eta hala, sorta bereizien adjudikazioa lortzeko aukera ematen zaie negozio bolumen txikia izateagatik kontratu handiagoak exekutatzetik izanen ez luketen enpresei. 41.4. apartatuan, kontratuaren xedea sortatan ez banatzea justifikatzeko balio duten arrazoiak ezartzen dira, eta a) letran kontrol neurri bat ezartzen da, zeina baita lehiaren defentsarako agintaritzari aurretiazko txostena eskatzeko beharra, bermatze aldera kontratua ez banatzeko erabakia modu justifikatuan eta salbuespenezkoan erabiltzen dela.

5. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

41.4.b) artikulua azken paragrafoa ezabatu duen 20. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 41.4.b) artikulua jatorrizko testua mantentzea proposatzen dugu.

Apirilaren 2/2018 Foru Legearen berritasun bat izan zen kontratazio-organoari exigitzea kontratua sortatan banatzea, eta hala, sorta bereizien adjudikazioa lortzeko aukera ematen zaie negozio bolumen txikia izateagatik kontratu handiagoak exekutatzetik izanen ez luketen enpresei.

41.4. apartatuan, kontratuaren xedea sortatan ez banatzea justifikatzeko balio duten arrazoiak ezartzen dira, eta b) letran kontrol neurri bat ezartzen da, zeina baita adjudikazio boterea 4.1.e) artikuluan aurreikusitako entitateetako bat denean, zer administrazio publikoren mendean dagoen, horri aurretiazko txostena eskatzea, bermatze aldera kontratua ez banatzeko erabakia modu justifikatuan eta salbuespenezkoan erabiltzen dela.

6. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren hogeita hirugarren puntua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Baldintza-agirietan edo eskaintzan aurreikusi gabeko xedapen gehigarriak kontratuan jasotzea ahalbidetzen duen aldaketak segurtasun juridiko falta eragiten du, berdintasun-printzipioa urra dezake eta auziei atea irekitzen die.

Alde batetik, aldaketak ez du argitzen nola kontrolatuko den gainerako lizitazioa adjudikaziodun izan ahal zitezkeela beren eskaintza edo prozedurarekiko interesa aldatuta, eta objektibatze zailak diren kasu sorta zabala sorrarazten du.

Bestetik, erabateko deuseztasunak adjudikaziodunarengan duen eraginak beharrezkoak ez diren auziak sor ditzake, zehaztasun falta dela eta.

7. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 64. artikuluko seigarren apartatua aldatzen duen zuzenketa.

«Adjudikazio irizpide sozialek guztizko puntuazioaren % 10eko haztapena eduki beharko dute gutxienez ere; horretarako, balioetsiko dira kontratuaren xedearekin zerikusia daukaten aferak, hala nola desgaitasuna daukaten pertsonen edo gizar-

te-bazterketako egoeran nahiz arriskuan dauden pertsonen laneratze eta gizareratzea; emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna; lanaren, familiaren eta bizitza pertsonalaren uztartzea; lan- eta soldata-baldintzen hobekuntza; profesional gazteen eta profesionalen entitate edo sozietate txikien parte-hartzea; enplegu zentro bereziekin eta laneratze enpresekin azpikontratatzea; irizpide etikoak eta kontratu-prestazioari aplikaturiko erantzukizun sozialari dagozkionak; prestazioan diharduten langileen prestakuntza, haien osasunaren babesa edo parte-hartzea; hizkuntza-irizpideak edo ildo bereko beste batzuk».

Zioak: 64. artikulua testua argitzea proposatzen da, adjudikazio irizpideen artean espresuki jasotzeko euskarari loturikoak, hizkuntza koofiziala den aldetik, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatze aldera.

8. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren hogeita hamalaugarren puntua aldatzeko zuzenketa.

Artikulu bakarraren hogeita hamalaugarren puntua aldatu eta honela geldituko da:

«75. artikuluari 4. apartatua gehitzen zaio, testu honekin:

“4. Espedientearen izaeragatik beragatik edo, salbuespenez, espedientearen inguruabarregatik lehia posible ez den kasuetan, 138.4 artikuluan aurreikusitako premiei buruzko txostenean justifikatuko da zer arrazoitan funtsatzen den prozedura negoziatua, eta zer premiari erantzuten dion kontratu-adjudikazioak.

Espedientearen aipatu beharko dira kontratu-exekuzioaren baldintzak, bai eta adjudikazio-hartzaile den pertsonak idatziz emandako onarpena ere.

Kasu horietan, eskaintza jasotzeko ez da beharrezkoa izanen kontratazio-mahaiaren parte-hartzea, ez eta Nafarroako Litzazio Elektronikoa-ren Plataforma erabiltzea ere, eta prozeduraren izapidetzeak bete beharko duen formalitate bakarra da kontratazio-organoaren arauen arabera adjudikazio-egintza formal bat egitea».

Zioak: Salbuespenezko prozedura bat da, berme gutxiago dituen; hori dela eta, gardentasun eta berdintasun printzipioak betetze aldera, beharrezkoa da prozedura hori baliatzeko arrazoiak txostenean jasotzea.

9. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren hogeita hamabosgarren puntua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Puntuaren xedea da 80.2. artikulua bigarren paragrafoa kentzea, prozedura erraztuan gutxienez bost enpresa edo profesionali eskaintza eskatu ezin izateko arrazoiak justifikatzeko eta gonbidatuak aukeratzeko irizpideak azaltzeko beharra kentze aldera.

Nafarroako Kontseiluaren 29/2021 Irizpenak jaso bezala, lehia bermatu ezin denean komenigarria da zuzenketa-neurriak mantentzea, kontratuaren adjudikazioan irregulartasunak saihesteko.

Arrazoiak justifikatzeko beharra ez da lagungarria administrazio-kontratazioa arintzeko; aldiz, kontratazioaren objektibotasuna eta gardentasuna bermatzen ditu.

10. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

80.2 artikulua bigarren paragrafoa kentzen duen 35. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 80. artikuluan prozedura erraztua arautzen da, eta bere bigarren apartatua ezartzen da kontratazio organoaren betebeharra, ahal dela, eskaintzak eskatzekoa gutxienez kontratua exekuta dezaketen 5 enpresa edo profesionali, eta bost eskaintza izatea ezinezkoa balitz, behar bezala arrazoitu eta justifikatzekoa. Uste dugu beharrezkoa dela zuzenketa hori mantentzea, kontratuen esleipenean irregulartasunak ez izateko eta kontratazio publikoa arautu behar duten printzipioak betetzeko.

11. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren hogeita hamaseigarren puntua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Puntuaren xedea da 80.5- artikulua kentzea, prozedura erraztuan gutxienez bi eskaintza lortu ez dituen kontratazio-organoaren betebeharra, beste eskaintza bat lortzen saiatzeko eta, ezin izanen balu lortu, horren arrazoiak justifikatzekoa, kentzeko.

Nafarroako Kontseiluaren 29/2021 Irizpenak jaso bezala, lehia bermatu ezin denean komenigarria da zuhurtzia-neurriak mantentzea, kontratuaren adjudikazioan irregularitasunak saihesteko.

Puntu hau kentzea objektibotasuna, gardentasuna eta lehia gainerako printzipio guztien gainera lehenesten dituen kontratazio-molde baten aurka doa. Erabat logikoa da jada errazturiko prozedura batean, non lehia gonbidapenen bidez bermatzen den, azken ahalegin bat egin behar izatea lehia bereziki murrizta denean eta, edonola ere, horren arrazoiak justifikatu behar izatea.

12. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

80.5 apartatua kentzen duen 36. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 80. artikuluan prozedura erraztua arautzen da, eta bere bosgarren apartatuan ezartzen denez, adjudikazio botereek eskatutako eskaintzetatik gutxienez bi eskuratu behar dituzte, eta irizpide hori ez badute betetzen, arrazoiak justifikatu behar dituzte. Uste dugu beharrezkoa dela zuhurtzia hori mantentzea, kontratuen esleipenean irregularitasunik ez izateko eta kontratazio publikoa arautu behar duten printzipioak betetzeko.

13. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 106.2 artikulua aldatzen duen zuzenketa.

«106. artikulua. Gizarte-, etika- edo ingurumen-arloko edo bestelako baldintza bereziak, kontratu-exekuziokoak.

1. Kontratazio-organoek baldintza bereziak ezarriko dituzte kontratu-exekuzioari dagokionez, baldin eta ez badute loturarik kontratuaren xedearekin, ez badira zuzenki edo zeharka diskriminazioak, Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateragarri badira eta hala lizitazio-iragarkian nola pleguetan adierazten badira.

Beti ere nahitaezkoa izanen da kontratazioaren plegu arautzailean ezartzea hurrengo apartatuan zerrendatzen diren exekuzio-baldintza berezietako bat, gutxienez ere.

2. Exekuzio-baldintza horiek, bereziki, ekonomikoak, berrikuntzari edo ingurumenari lotuak edo sozialak diren kontsiderazioei buruzkoak izan ahalko dira.

Zehazki, honako helburu hauek erdiesteko ingurumen-arloko kontsiderazioak ezarri ahalko dira: negutegi-efektuko gasen emisioen murrizketa; kontratu-exekuzioaren ondorioz ukiturik gerta daitezkeen ingurumen-balioen mantentzea edo hobekuntza; uraren kudeaketa jasangarriagoa; energia berriztagarrien erabileraren sustapena; produktu-birziklatzearen eta ontzi berrerabilgarrien erabileraren indartzea; edo solteko produktu-banaketa eta ekoizpen ekologikoaren bultzada.

Kontsiderazio sozialak nahiz enpleguari buruzkoak honako helburu hauetakoren batekin ezarri ahalko dira: Desgaitasuna duten pertsonen eskubidei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan aitorturiko eskubideak gauzatea; legeria nazionalak exigitzen duena baino desgaitu-kopuru handiagoa kontratatzea; lan-merkatuan txertatzeko zailtasun bereziak dauzkaten pertsonen enplegua sustatzea laneratze-enpresen bitartez, batez ere desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonena; merkatu horretan gizonen eta emakumeen arteko desberdinkeriak ezabatzea, lanean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duten neurrien aplikazioa erraztuz; emakumeek lan-merkatuan parte hartze handiagoa izan dezaten erraztea, bai eta lanaren eta familiaren uztartzea ere; langabezia borrokatzea, batez ere gazteena, emakumeena eta iraupen luzekoa; lantokian prestakuntza eman dadin sustatzea; lantokian segurtasuna eta osasunaren babesa bermatzea, bai eta aplikatzeak diren hitzarmen kolektibo sektorialen eta lurralde-mailakoen betetzea ere; laneko istripuak prebenitzeko neurriak; Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 145. artikuluan definitzen den enplegu-estrategia koordinatuari erreferentzia eginez ezartzen diren bestelako helburu batzuk; edo oinarriko lan-eskubideen errespetua bermatzea ekoizpen-katean zehar, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarriko konbentzioak bete daitezkeen exigituz, barne harturik garapen bidean dauden herrialdeetako ekoizle txikiei mesede egitearen aldeko kontsiderazioak, haiekin aldekoak dituzten merkataritza-harremanak eduki ondoren, nola baitira gutxienezko prezio baten ordainketa, ekoizleentzako sari bat edo merkataritza-kate osoan gardentasun eta trazagarritasun handiago bat edo hizkuntza-irizpideak egotea».

Zioak: 106. artikulua testua argitzea proposatzen da, exekuzio-baldintza berezietan enpresa adjudikazio-hartzaileak eta bere langileak

euskara erabiltzeari loturiko exekuzio-baldintza bereziak sartzeko aukera jasotzeko, hizkuntza koofiziala den aldetik, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatze aldera.

14. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 119 artikuluari bigarren apartatua gehitzeko zuzenketa.

«2. Kontratazio publikoaren arloko eskumena duen departamentuaren burua izanen da Kontratazio Publikorako Batzordeko buru, eta batzordekide, berriz, foru lege honen mendeko administrazioen eta erakundeen ordezkariak, bai eta lizitazioetan esku hartzen duten enpresen eta profesionalen ordezkariak eta erakunde sindikalen ordezkariak ere, Nafarroako Foru Komunitatean langileen ordezkarien eta enpresa-batzordeetako kideen ehuneko 10 edo gehiago lortu badituzte».

Zioak: Aldaketa hau proposatzen da Kontratazio Publikorako Batzordean parte har dezaten Nafarroan ordezkari gehien duten sindikatuek, Nafarroako beste erakunde eta parte-hartzerako foro instituzionaletan ezarritako irizpideari jarraikiz.

15. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOEK ETA NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposameneko artikulua bakarrari apartatu berri bat gehitzeko zuzenketa.

«Hirurogeita hiru bis. 229.1. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Proiektuan aurreikusitako obra egiteko aurrekontuan kostu erreala %20 baino gehiagoko aldea gertatzen bada, proiektuaren egileari lepora-

tzen ahal zaizkion huts edo omisioen ondorioz, kalte-ordain sistema bat ezartzen ahalko da pleguan, alegia, proiektua egiteko kontratuaren prezioa jaistearen aldearen portzentajearen arabera, gehienez ere prezioaren ehuneko 30era murriztuz.

Zioak: Artikulu bereko 1. eta 2. apartatuen arteko kontraesana saihestea.

16. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren hirurogeita bosgarren puntua aldatzeko zuzenketa.

Artikulu bakarraren hirurogeita bosgarren puntua aldatu eta hogeita batgarren xedapen gehigarriari 3. puntua kentzen zaio.

Zioak: Xedapen gehigarriaren aurreko bi apartatuetan lehia baztertzea eta kontratazio publikorako prozedura bat ez baliatzea justifikatuta bada ere, hirugarren apartatuan ez da gauza bera gertatzen; izan ere, organo kudeatzailearen esku uzten du medikamentu bat kudeaketa arrazoiengatik, baina ez da justifikatzen lehiarik ezin dela egon, ezta zergatik ez den jarraitzen kontratazio-rako prozedura bat ere.

17. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari beste puntu bat, hirurogeita zazpigarrena, gehitzeko zuzenketa.

Artikulu bakarrari hirurogeita zazpigarren puntua gehitzen zaio, eta testu hau izanen du:

«Hirurogeita zazpi. Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen hamabosgarren xedapen gehigarria indargabetzen da».

Zioak: Gure erkidegoaren errealitate soziolinguistikoa aintzat hartuta xedapen horrek ezartzen duen betebeharra bidegabea eta neurritz kanpoko da Nafarroan kontratatu nahi duten profesional eta enpresentzat.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da, Nafarroaren lehiakortasun-maila leheneratzea ekarriko duen erreforma fiskal bat aurkez dezan.

MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita, Nafarroaren lehiakortasun-maila leheneratzea ekarriko duen erreforma fiskal bat aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko irailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako María Jesús Valdemoros Erro andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Aurten, beste behin ere, Nafarroa azkenetako bat da Fundación para el Avance de la Libertad eta Tax Foundation elkarteek argitaratzen duten Lehiakortasun Fiskalaren Indize Autonomikoan. Bereziki deigarri eta kezagarria da, foru ogasuna duten gainerako hiru lurralde historikoak –EAEko hiru probintziak– bost lurralde lehiakorren arte-

an daudelako. Ematen du Nafarroako Gobernua gure autonomia fiskala esparru fiskal garestiago eta kaltegarriago bat sortzeko baliatzen tematuta dagoela, gure etxe, gure enpresa eta gure ekonomiaren lehiakortasuna denaz bezainbatean.

Ekonomia guztiei eragin dien krisi sakon batek leheneratzen ari garen honetan, eragile ekonomikoei ematen zaien tratamendu fiskalean beste lurralde batzuekiko diferentzial negatibo hori zama handia da suspertze-prozesua sendotzeko eta enplegu-sorkuntza bultzatzeko. Gustatu ala ez gustatu, kontua da beste ekonomia batzuekin lehiari ari garela, eta fiskalitatea erabakigarria da enpresek eta familiek erabakiak hartzeko unean. Hori dela-eta, gogorarazi beharra dago, esate baterako, ezen Nafarroak, beste probintzia eta autonomia erkidego batzuetan ez bezala, oraindik ere ez duela krisiaren aurretiko enplegu-maila berreskuratu edo ez duela bizi dugun pandemiak ekarri duen langabezia guztia xurgatu.

Hori guztia ikusirik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroaren lehiakortasun-maila leheneratzea ekarriko duen erreforma fiskal bat aurkez dezan, Nafarroa talentuarendako eta enplegua sortzen duten enpresendako erakargarri eginen duena, kalitatezko zerbitzu publikoak eman ahal izatea ere bermatuko duen etorkizun oparoa izan dezagun.

Iruñean, 2021eko irailaren 23an

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

Mozioa. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. Hitzarmena eta Etxeko Langileentzako Lanari buruzko 201. Gomendioa berresteko lanean jarrai dezan.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. Hitzarmena eta Etxeko Langileentzako Lanari buruzko 201. Gomendioa berresteko lanean jarrai dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko irailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Errege-lamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2021eko irailaren 30eko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Oraintsu ezagutu dugu «Las empleadas del Hogar de Navarra: análisis de sus condiciones laborales y su proceso de regularización» izeneko dokumentua, zeina Begoña Elizalde San Miguel, Irene Lapuerta Méndez, Magdalena Díaz Gorfinkiel eta Victoria Bogino Larrambeberere ikertzaile handiek egin baitute, eta helburu duena etxeko lanen sektorea Nafarroan zertan den eta estatua- ren baitan izaten ari den bilakaera argitzea gene- roaren ikuspegitik nahiz ikuspegi interseksionale- tik.

Azterlan horrek sektore hori esparru feminiza- tu, prekario eta ikusezin gisa ulertzen laguntzen

digu, ondo asko jakin arren COVID-19ak argi utzi duela etxeko langileak funtsezkoak direla gizarte- aren antolakuntzan, hainbeste non martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege-dekretuan “funtsezko jarduera” dela deklaritzen baita, hartara onartuta haien lana zein garrantzitsua den zaindutako per- sonen ongizaterako eta biziraupenerako.

Azterlan horretatik orobat ondorioztatzen da etxeko lanari dagokionez hutsuneak daudela babes orokorreko sisteman; esate baterako, langabezia- gatiko prestaziorik ez egotea edo kotizazio-oina- rriak beren soldatetatik beheiti mantentzea 2024ra bitarte, zenbait urte gehiago luzatuta hartara lane- ko diskriminazioa eta etorkizuneko erretiroa eta kotizaziopeko prestazioak kaltetuta profesional horien kasuan.

2018ko aurrekontu orokorretan zuzenketa bidez onetsitako neurriak berekin ekarri du atzera- pen larria gertatzea eskubideen ekiparazioan, halako moduan non areagotu egiten baitira nagu- siki emakumeek osatzen duten sektore horretako diskriminazioa eta lan-eskubideen urraketa; neurri handi batean migratzaileak dira, eta gure gizarte- ren parte handi baten arreta- eta zaintza- beharrazanez erantzuten ari badira ere lan-baldin- tza prekarioak eta soldata baxuak dituzte.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposa- men hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. Hitzarmena eta Etxeko Langileentzako Lanari buruzko 201. Gomendioa berresteko lanean jarrai dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorretan 6777. zuzenketa onetsi izanaren ondorioak lehengoratu ditzan.

Iruñean, 2021eko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzako publiko-komunitarioa, deszentralizatua eta kontrol publikoa bermatuko dituzten neurriak har ditzan, energia berriztagarrien enpresa publiko bat eratzeke egin beharreko urratsak eginez.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lankidetzako publiko-komunitarioa, deszentralizatua eta kontrol publikoa bermatuko dituzten neurriak har ditzan, energia berriztagarrien enpresa publiko bat eratzeke egin beharreko urratsak eginez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko irailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, heldu den irailaren 30eko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Argiaren prezioa inoizko maximo historikoetan; fakturak gero eta garestiago; enpresa elektrikoak gero eta aberatsago; herritarrak gero eta pobregogo, eta Espainiako Gobernua gai hori etsipenetik eta permisibitateetik jorratzen. Hau da herritarren aurka burutzen ari den eta familientzat, enpresa txiki eta ertainentzat eta negozio txikientzat hain ondorio larriak izaten ari den iruzur ikaragarriaren laburpena.

Egoera hau, besteak beste, enpresa publikoen pribatizazio, salmenta eta ixtearen ondorio da; izan ere, horrek sistemaren deserregularizazioa eta "merkatu"aren esku uztea ekarri du. Administrazio-kontseiluetatik kontrolatu eta manipulatzeko duten merkatua, helburu bakar batekin: energia

bezalako ondasun oinarritzko baten bizkar aberas-tea; izan ere, enpresa handiek, urtean milaka milioi irabazten dituzten bitartean, kontsumitzaileei lapurtu eta lurralde ekoizleak espoliatzen dituzte, eta horrek ondorio oso kaltegarriak ditu gizartearentzat eta ingurumenarentzat.

Eta horri aurre egiteko, koiunturazko neurriak hartu eta adabakiak jarri besterik ez da egin. Eta enpresa handien irabazietan eragin minimoa duen neurri bat hartu denean, horiek aurka jarri dira eta mehatxu eta eta xantaiarekin erantzun dute. Eliteen eta gehiengo sozial eta popularren arteko nor-gehiagoka baten aurrean gaude.

Egoera hau garesti ateratzen ari zaigu. Bada garaia urratsak egiteko subiranotasun energetiko-rako bidean, zeinak ahalbidetuko digun sistema propioak edukitzea, oligopolioa hautsiko dutenak, publikotasunetik elektrizitatea ondasun eta esku-bide oinarritzko gisa errespetatuko duen sistema bidezkoak eraikiz.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposa-men hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak salatzen du Espainiako Estatuko enpresa elektrikoak argindar-raren prezioarekin egiten ari diren iruzur larria.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela sistema propio bat edukitzea, Espainiako Estatuan ezarritako oligopolioa hautsi eta eremu publikotik elektrizitatea ondasun eta eskubide oinarritzko gisa errespetatuko duen siste-ma bidezko bat eraikitzeke.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du premiaz eta bere esku-menon esparruan neurri zehatzak har ditzan:

a) Lankidetzako publiko-komunitarioa, deszentra-lizatua eta kontrol publikoa bermatzeko, energia berriztagarrien enpresa publiko bat eratzeke egin beharreko urratsak eginez.

b) Pobrezia energetikoari aurre egiteko.

Iruñean, 2021eko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentua poztu egiten da Venezuelako Bolibartar Errepublikako Gobernuak eta Venezuelako Plataforma Bateratuak akordioak erdietsi dituztelako.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezker talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentua poztu egiten baita Venezuelako Bolibartar Errepublikako Gobernuak eta Venezuelako Plataforma Bateratuak akordioak erdietsi dituztelako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko irailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Iragan abuztuaren 13an Elkar Ulertzeko Memoranduma sinatu zen Mexiko hirian, agiri bateratu bat eta bi akordioaren bidez: Venezuelak Guayana Esequibari dagokionez duen subiranotasuna berretsi eta aldezteko akordioa eta Venezuelako herriaren gizarte-babeserako akordio partziala.

Akordio horiek Venezuelako Bolibartar Errepublikako Gobernuak eta Venezuelako Plataforma

Bateratuak sinatu zituzten 2021eko irailaren 6an, Venezuelari buruzko Elkarrizketa eta Negoziazio Prozesuaren Mahaiak bigarren bilera-erronda amaitu eta gero.

Agiri bateratuan adierazten denez, aldeek adostu zuten, besteak beste, "herritarren beharri- zuzenari erantzuteko baliabideak lortzeko eta lehengoratzeko mekanismoak ezartzea, garrantzi berezia emanda COVID-19agatik pandemiaren ondorioei, aintzat hartuta erakunde aldeaniztunetatik datozenak ere, Errepublikak haiek baliatzeko eskubidea badu".

Hori guztia dela eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentua poztu egiten da Venezuelako Bolibartar Errepublikako Gobernuak eta Venezuelako Plataforma Bateratuak akordioak erdietsi dituztelako. Akordio horiek lehenesten dute Venezuelako herritarren ongizatea arreta gunean jartzeko beharra, bai eta Venezuelako herritarren gizarte-babeserako neurriak hartzeari ere.

2. Nafarroako Parlamentuak balioan jartzen du Venezuelari buruzko Elkarrizketa eta Negoziazio Prozesuaren Mahaia. Horren haritik, aldeak animatzen ditu hasitako prozesuari jarraipena eman diezaioten, Venezuelako herriaren subiranotasun aldezteko elkar ulertzeko bide gisa, herrialdearen aniztasun soziopolitiko aintzat hartuta.

3. Nafarroako Parlamentuak eskerrak ematen dizkie Mexikoko, Norvegiako, Herbehereetako eta Errusiako gobernuei, negoziazio prozesu hau erraztu eta laguntzeagatik.

Iruñean, 2021eko irailaren 23an

Foru parlamentariak: Arantza Biurrun, Jabi Arakama, Laura Aznal, Ainhoa Aznárez eta Mari- sa De Simón

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzorderako izendatu beharreko lau kide hautatzea.

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuak Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzorderako izendatu beharreko lau kide aukeratzeko hautagaitzak aurkezte-

ko epea **2021eko azaroaren 5eko 14:30ak** arte luzatzea (10-21/ELC-00003).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
